



Voith-Gorostidin 500 etxe eraikitzea nahi du EAK

TOLOSA ▶ Gehienak babes ofizialekoak edo tasatuak izatea nahi du eta 800 aparkaleku egitea

LANTEGIAK ▶ Bi lantegi horiek herrian gelditzeari «garrantzi handia» ematen dio EAK ▶ 3

ABALTZISKETA ▶

Herri aldizkari berria, kalean

‘Salbatxiskero’ jarri diote eta herriko eragileek egin dute ▶ 5

ARESO ▶



JAIONE ASTIBIA

Giro ikusgarria Kultur Egunean

Iparraldeko jokoan sariketa ere jokatu dute bertan ▶ 7



Batelen arteko sailkapen proba ikusgarriak

TOLOSA ▶ Giro aparta sortu zen igandean Oria ibaiaren inguruan, batelen arteko sailkapen proba ikusgarrietan, San Joan jaien hasierako ekitaldirik jendetsuena izanik. Guztira 17 batel aritu ziren adiskide giroan eta ondoren denek elkarrekin bazkaldu zuten Zerkausion bertan. Datorren igandeko finaletarako sail-

kapen probetan Gure Txokoak egin zuen denborarik onena, bost zentesima besterik ez ateraz Gazteluri, Ibarra Aralar Kirolak, AKE Izaskun 66 taberna, Txinparta, AKE Izaskun Orbela taberna, Aldaba erreka eta Climaxvic ere sailkatu ziren. Argazkian, TAK Oria 2005 infantilen irteera. J.SAIZAR ▶ 2-3

Erremontari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

NEREA
1952

LENZERIA

**Trikiniak,
bainujantziak,
hondartzarako
kamisolak**

Iriarte
GERRUNTZE • LENZERIE

Korreoa kalea, 7 • TOLOSA

**AZKEN
AUKERAK
%40 eta
%50eko
BEHERAPENA**

SANJOANAK ▶



Gure Txokoa elkartearen batelak (argazkian) irabazi zuen finalerako sailkapen proba, igandean. JOKEMI SAIZAR



Jose Manuel Ansorena IX. Oroimenezkoan, neska lehian. J. SAIZAR

Sanjoanetako lehenak

Asteburuan izan dira San Joan jaietako lehendabiziko ekitaldiak: kale saskibaloia 3x3, xake eta toka txapelketak, batelak, txirrindulari probak...; datozen egunotan izango du jarraipena jai giroak herrian



11 taldek hartu zuten parte XXXII. San Joan Nazioarteko Xake Txapelketan, Berdura plazan. HITZA

I. ETXEBESTE - L. MONTES

Sanjoanetako lehen ekitaldiak izan dira asteburuan. Ikuski-zun gehienak datozen egunotan badira ere, joan den larunbatean eta igandean izan zen festa giroa non-nahi: batel estropadak, graffiti, sagardo, xake eta toka txapelketak, kaleko saskibaloia 3x3, txirrindulari proba, pilota, dantza...

Batelak. Giro aparta sortu zuten herenegun 17 batelen arteko estropadak Oriain ibaian, bai uretan, bai ibai ertzean ere. Sekulako adiskide giroa izan zen batelen artean eta ondoren arraunlari guztiek elkarrekin bazkaldu zuten Zerkausian. Orain arteko entrenamenduetan bost minututik jaistea ez zuen inork lortu, baina igandean lau eskifaia lortu zuten. Gure Txokoak egin zuen denborarik onena (4.55.08), baina Gazteluri bost zentesima besterik ez zizkion atera (4.55.13) eta Ibarra-Aralar Kirolak (4.56.70) eta AKE Izaskun-66 taberna (4.58.44) ere oso segundu gutxira gelditu ziren. Txinparta (5.02.97), AKE Izaskun-Orbela taberna (iazko irakazlea, 5.05.54), Aldaba erreka (5.07.18) eta Climaxvic (5.16.65) izango dira beste finalistak. Gazteluarrek «hiru hilabete bakarrik entrenatuta» lortutakoa goraiatu zuten arraunlari askok. Ibartarren lana ere aipatzekoa da, hiru batel osatu zituztelako. Arraunlari gehienak gazte samarrak eta hasiberriak baziren ere, bete-

ranoek ere —Aldaba erreka eta Climaxvic— bere maila erakutsiz finalerako txartela lortu zuten. Finaletik kanpora gelditu dira Ibarra-Danon Txokoa (5.25.43), Hirukide A (5.26.73), D. Ormazabal (5.29.46), Ibarra-Gurutze karrozeria (5.36.72), Hirukide B (5.37.92), Arraun (5.43.37), Oriain (5.43.85), Ttan-tto (5.45.63), eta TAK Oriain 2005 (6.01.47). Hirukideko ikasleek eskarmentua duen patrioiaren lezioak ondo ikasi dituztela erakutsi zuten. TAK Oriain 2005 bateko infantilek bi saio egin behar izan zituzten, patrioiak toleta hautsi zuelako.

3x3 kale saskibaloia. Jende askok jarraitu zituen finalerako eta finaletako partidak. Senior mailako finalerdietan, Txapakun Tis Tis taldeak 17-16 irabazi zion 3.Basketg.com-i, eta Tolosako Olagarroak-ek 20-16 Untxiak-i. Finalean, Txapakun Tis Tis izan zen garaile, Olagarroak taldeari 13-8 irabazita. 15 taldek jokatu zuten senior mailan. Alebinetan, berriz, 6 talde aritu ziren, eta horien artean Novatillos-ek irabazi zuen finala, Tolosako Jaia-ren aurka 19-7 irabazita. Infantil mailan, azkenik, Izenikpe Ordizia-k 17-7 irabazi zion Tolosako Los Intocables-i. 8 taldek jardun zuten maila horretan.

XXXII. San Joan Nazioarteko Xake Txapelketan, Enrique Pinedaren oroimenezko XXIX. Saria. Gipuzkoa eta ingurueta-ko probintzietako 11 talde bildu zituen igandean txapelke-

hilberriak ▶

eskalak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



Juan Antonio Dorronsoro Tolosa

jauna



Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Emaztea: Margarita Ugartemendia; seme-alabak: Juan Antonio eta Ana Mari Eizmendi, Jesus Mari eta Olga Artola, Lourdes eta Andoni Lizeaga; bilobak: Ane, Xabier, Olatz, Miren, Irene eta Jon; ezkon anai-arrebak: Juanita Ugartemendia eta Luis Ramirez, Ramona Etxezarreta; ilobak, lehengusuak, Moraima Romero, eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN FRANTZISKOKO parroki elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Zuberoa 2, 2
oharra ▶ gorputz bella Tolosako Funeraria Vascongada Beilatokian egongo da

TOLOSA, 2005eko ekainaren 21a

HIRIGINTZA ▶

Voith-Gorostidi eremuan 500 etxe egitea nahi du EAK

Horietako 300 babes ofizialekoak edo tasatuak; lantegi horiek herrian gelditzeari «garrantzi handia» ematen diote



Txapakun Tis Tis (Atletico SS) eta Olagarroak (Tolosa) finalean. J. SAIZAR

tak, Tolosa-Ibarrako Xake Elkartek antolatuta. Bi fase izan zituen lehiak: lehenean, denek arteko liga jokatu zuten, eta txapela lortzeko borrokatu behar zuten lehen sei taldeak zeintzuk izan ziren erabakitzeko balio izan zuen. Euskadiko txapeldunordea, Erretereriako Fomento taldea, izan zen fase honetako lehena, Errioxako Sociedad Ajedrecistica Logroñesa puntu erdira zutela. Hirugarren Zornotzakoak izan ziren, eta atzetik Ibarra, eta Erretereriako Beraun-Bera. Lehen faseko seigarren postua izan zen denetan borrokatuena: ligako azken txandan, hiru taldek zuten postu hori lortzeko aukera; azkenean, herriko Tolosa taldeak eskuratu zuen Eibarko eta Beasaingo Alfil taldeen aurretik. Azken fasean, Fomento jaun eta jabe izan, eta bigarren urtez jarraian sanjoanetako txapeldun izan zen. Bigarren Zornotza sailkatu zen, errioxarre aurrea hartuz. Tolosarrek ez zuten inongo aukerarik izan fase honetan, eta txapelketako seigarren postuan bukatu zuten. Bestalde, txapelketako jokalaririk onenaren saria Logroñoko Miguel Angel Saenzek irabazi zuen.

Eskualdekako Toka Txapelketa. Harizpek antolatutako txapelketan, elkarterko Jose Ma-

nuel Ortiz izan zen irabazle, bederatzi ukiturekin. Atzetik izan ziren Alegiako Jose Luis Arnedo (8), Anoetako Fidel Benito (7), Urrietako Antonio Iglesias eta Manolo Gonzalez (5, biak), eta Zizurkilgo Florentino Bravo (5). Jose Manuel Ortiz bera izan zen Tolosako lehen sailkatua, eta bigarren Angel Izagirre, 5 ukiturekin.

Jose Manuel Ansorena IX. Oroimenezkoa. Benjamin, alebin, infantil, kadete eta junior mailako txirindulariek hartu zuten parte igandean neskekin batera. Benjaminetan, Ordiziako Xabat Aranburuk irabazi zuen mutilen artean, eta Ordiziako Maria Ibañezek nesketatik. Alebinetan, Oriako-Belcako Unai Jauregi eta Asier Capa izan ziren lehena eta bigarrena mutilen, eta Andoaingo Eider Rojo nesketan. Herriko lehena Oriako-Belcako Imanol Eguren izan zen. Infantiletan, Andoaingo Imanol Ugalde eta Aitor Ugalde sailkatu ziren lehen. Herriko lehena Oriako-Belcako Joseba Alustiza izan zen. Kadeteetan Alain Iglesias, emakumezkoetan Amaia Etxedona, eta junior mailan Asier Olea izan ziren irabazle. Federatuta ez dauden artean, berriz, Luis Miguel Zeberio irabazi zuen alebin mailan, eta Odei Arrietak benjamin mailan.



Onintza Lasa eta Kepa Diaz de Alda atzo Alkartetxean. J. SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Larramendi kaleko eskuinaldeko eremu (Voith-Gorostidi enpresak) etxebizitza proiektuak sortu dituen «jakinmina eta zurrumurruak» ikusita, udal hauteskundeetako egitasmoan agertzen zen bere planteamendua agertu zuen atzo Eusko Alkartasunak.

Aipatutako eremua, Arriaran gasolindegitik Arrameleko ermitaraino dihoa, biak ikutu gabe; 33.000 m² inguru dira.

Historia eta industria aldetik «garrantzia handia» duen eremua dela azaldu du Onintza Lasa zinegotziak, «herriaren sorrera hori izan zelako eta enpresa garrantzitsuak, langile asko dituztenak» daudelako. «Tolosako aberastasunarekin oso lotuta dago eta langile horiek alde egiten badute, etxeak soberan egongo lirateke», erantsi zuen Lasak.

Kepa Diaz de Alda Hirigintza

zinegotziak esan zuen lehen helburua «industria eta lana mantentzea» dela eta enpresak horiek Apatta-erreako industrialdean kokatzea. Bigarren helburua herriaren erdialdean etxebizitzak egitea da, «baina edozeinek erosteko modukoak, herritik ez dezaten alde egin», hau da, babes ofizialekoak (BOE) eta tasatuak. Salmenta libreko batzuk ere izatea proposatzen du EAK, operazioa bideragarria izan dadin.

Eremu horri irtenbidea emateko, hau da, enpresak eta lanpostuak mantendu ahal izateko, 500 etxebizitza inguru egitea proposatzen du EAK. Honek ematen duen dentsitatea «altu samarra» dela diote: 158 etxebizitza/Ha. Azken aktuazioetan —SAM eta Mustad enpresetan— dentsitate hori txikiagoa izan zen, baina «enpresen garrantziagatik» kasu honetan bikoiztu egin behar izan dute. Hala ere etxebizitza

«duinak, ez erlauntzak edo dorreak» egin nahi dituztela diote. Dentsitate baxuko adibide gisa Mustad-eko etxeak —62 etxe/Ha.— eta SAM-eko etxeak —45 etxe/Ha.— aipatu zituzten, eta dentsitate altukoak berriz, Ibarrako sarrerako dorreak —230 etxe/Ha.—. Larramendi kaleko beste aldean 117 etxe/Ha.-ko dentsitatea dago. «Zoru horretan baratzak izango balira, dentsitate hori ez genuke onartuko, baina industriak daudenez, 400-500 langile zuzen eta beste asko inguruan, altu samarra atera da», dio zinegotziak.

500 etxebizitza horietatik 300 bat izatera sozialekoak izatea nahiko luke EAK, hau da, BOE edo tasatuak.

800 aparkaleku

Etxebizitzekin batera, aparkalekuen arazoari irtenbidea eman diezaiokoen proposamena ere luzatu du EAK: 800 udal aparkaleku plaza. «Alde Zaharria eta Belateko jendearentzat konponbidea izango litzateke eta Alde Zaharretik gertu dagoenez, hau peatonalizatzen lagunduko luke, autobus zerbitzua ere hori dagoela kontuan hartuta», erantsi zuen Diaz de Aldak. Aparkaleku hauei, etxebizitza bakoitzak dituen plaza erantsi beharko litzaizkieke.

Eremu horretako arau subsidiarioak oraindik aldatu gabe daude, «baina legealdi honen bukaerarako etxebizitzak martxan egotea» espero dute.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lurra, garajea eta

trastelekua. Etxesagasti
943 69 68 56.

Lizartza. Egongela, sukalde, 3 logela eta 2 bainugela. Etxebizitza eraberritua. Kanpoaldea. 34 m²-ko garajea. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Eraiki berria. Bi logelako etxea, terrazak, bokoa, garajea eta trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 72 m². Egongela, sukalde, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdialdean 3 logelako etxebizitza berria. Bi autorentzako garajea trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Taberna salgai. Informa zaitze. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Hiru logelako etxebizitza. Erdi eraberritua. Igogailua eta trastelekua. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 95m²-ko etxebizitza. 3 logela eta egongela. Kanpoaldea. Balkoiak. Egoera onean. Etxesagasti. 943 69 68 56.

JAKON INGELESA UDA

- KURTSO TRINKOA
- TALDE BAKARRA
- MAILA: ERDI-GOI MAILAKO (INTERMEDIATE)

DBH: - Laguntza - Prestaketa - Gai guztiak

P.Gorosabel 2 1º (Trianguloan) **TOLOSA** Telf. 943-652372

HERRI KIROLAK ▶

Giroa onean egin da Euskal Jokoen II. Topaketako finala

Asteasu, lehenengo, eta Zizurkil, hirugarren, izan ziren eskualdeko partaideak

IMANOL GARCIA

Euskal Herriko sei herrialdeetatik 24 herri lehiari aritu ziren larumbatean Oiaratzun, Ikastolen Federazioak eta Ikaspilotak antolatutako II. Euskal Jokoen Topaketan. Eskualdeetik Asteasuk eta Zizurkil parte hartu zuten eta lehenengo postua eta hirugarrengoa lortu zuten hurrenez hurren.

Beroa izan zen protagonista eta kirolariak une batzuetan 40 gradoko tenperatura jasan behar izan zuten. Parte-hartzaileen arteko giro ona izan zen beste protagonista. Horrela azpimarratu dute bai antolatzaileek, bai Asteasuko eta Zizurkilgo taldeetako kideek. «Gipuzkoako finalerdian bigarren sailkatzea sorpresa izan zen. Gero, finalean bagenekien aurrean izango ginela, baina ez genuen espero Topaketa ira-



Partaideek beroari aurre egin zioten. G. LABANDIBAR/OARSOALDEKO HITZA

baztea», azaldu du Mikel Alkortak, Asteasutik joandako taldekideak. «Giroa oso jatorria izan zen».

Iritzi berdinekoa da Pello Argaia, Zizurkilgo taldekidea:

«Oso gustura aritu gara. Azken finean helburua joko hauek ezagutaraztea da. Gure aldetik urteak badira herrian, festetan eta, herri kirolen erakustaldiak egiten ditugula eta gustura ari-

tzen gara. Horrelako ohiturak ez gaitzea da helburua».

Asteasu eta Idiazabal izan ziren talde indartsuenak, baina Tolosaldekoek eraman zuten txapela, finalean berritasunak ziren hiru jokoean erakutsitako abilezia, eta nola ez, zortea ere, izan zutelako. Galotxa, xiba eta zama-garraioa izan ziren joko berriak.

Partaideen arteko giro ona jokoen ondorengo bazkaria ere nabarmen azaldu zen. 400 bat pertsona bildu ziren eta ondoren herrian zehar eskusoi- nu, alboka eta abarrekin festa giroan aritu ziren. Festak Oiaratzungo kaleetan jarraitu zuen gauean ere. Orain datorren urterako taldea mantentzea izango dute helburu bai Asteasuk eta bai Zizurkilek, eta agian eskualdeko beste herriren bat ere animatuko da euskal joko hauetan parte hartzera.

ANOETA ▶

Batzar orokorra Alkartasuna biltokian, bihar

Alkartasuna Biltokian lehen sei hilabetekoaren batzar orokorra egingo dute bihar 19:00etan, elkarteko egoitzan. Bertan balantze ekonomikoaren berri emango zaie bazkideei. Bestalde, uztailearen 14an egingo den bidaia- ren berri emango dute. Ordizian dagoen Delikatuz elikatze eta gastronomia gunera egingo dute bisita. Ondoren Zumarragan dagoen Antiguako baselizara joan dira, gero bertan askaria egiteko. Bidaia sei euro balio du bazkideentzat eta zazpi ez direnentzat. Delikatuzera sar- rera eta askaria Alkartasunaren esku izango da.

ANOETA ▶

Kirol jarduerak egitasmoan aritzeko aukera

1995-96 eta 1989-90 ikasturte bitartean jaio direnei zuzenduta, aurten ere Uda 2005: Kirol jarduerak egitasmoa antolatu da. Kirol ugari egiteko aukera dago: Piraguismoa, hondartzako boleibola, hipika, surfa, igeriketa, pilota eta xakea. Izen-ematea udaletxean egin behar da. Ostirala arte zabaldu da epea, hilaren 24a arte. Matrikularen dirua kontu korrontetik kobratuko zaie parte-hartzaileei.

ANOETA ▶

San Joan kantuen entsegua gaur Ikastolan

San Joan kantuen entsegua egingo da gaur Ikastolan. 20:00etan hasiko da entsegua eta antolatzaileek anoetar guttiak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

VILLABONA ▶ GAZTETXEA

Onddokoek «gazteek gaztetxe bat behar dugula aldarrikatzeko» mobilizazio astea burutu dute

Fleming parkeko eskoletan dauden taldeei «ez zaie irtenbide duinik eskaini», diote Gaztetxeok

ERREDAKZIOA

«Udalak gaztetearekin eskaintako lokalak gaztete bat izateko baldintzak betetzen ez dituela salatzen eta gazteok gaztete bat behar dugula aldarrikatzeko mobilizazio ugari burutu ditugu pasa den aste osoan», azaldu dute Onddo gazte asanbladakoek ohar batean. Astean

zehir sinadura bilketa eta kazerolada egin ostean, manifestazioa burutu zuten *Etxe duin baten alde* lelopean.

Udalak bando bat kaleratu du Fleming parkeko eskoletan dauden taldeekin zer gertatuko den adierazteko. Onddo gazte asanbladakoek azaltzen dutenez, «ez gara irtenbide duinik eskaini ez zaien bakarrak,

gure eraikin berean lan egiten duten beste herriko eragileei ere, haurteindegia kenduta, ez baitzaie irtenbide duinik eskaini. Hau guztiarekin ikusten dugu Udalak ez duela plangintza bat egin. Hasteko ez du alternatiba egokirik pentsatu eraikina botatzearekin afektatuak garen gizarte eragileontzat».

Herrian lokalen falta dagoela azaldu da Udaletik. «Lokalen falta badago zergatik eman zitzaion Bertsozale Elkarteari herriko eraikin oso bat?», azaldu dute Onddokoek eta gaineratu: «Herrian 370 etxe huts izanik eta Salvadoran eraikiko dituztenak kontuan hartuz, zertarako du Udalak horrelako presa lokalak birrintzeko?».

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

ABALTZISKETA ▶ KULTURA

'Salbatxiskero' aurkeztu dute, herri aldizkari berria

Udalak, guraso elkarteak eta eskolako irakasle zein ikasleek elkarlanean bultzaturiko ekimena izan da



Iragan larunbatean aurkeztu zuten jendaurrean aldizkaria Abaltzisketako Kultur Etxean. INIGO TERRADILLOS

NOELIA LATABURU

Sabaltxiskero. Hauxe da Abaltzisketan sortu duten aldizkari berriaren izena. Larunbatean egin zuten aurkezpen ofiziala Kultur Etxean, non Udaleko bi zinegotzi, gurasoak eta eskolako ikasle eta irakasleak izan ziren. Eskolako irakasleek jakinarazi dutenez aurkezpena «arrakastatsua» izan zen eta dena «pentsatu bezala» garatu zen. Ekitaldian guraso elkarte-kide batek jardun zuen proiektu honen gainean. Ondoren, eskolako ikasleek bertsoa abestu zuten. Amaieran askaria izan zuten elkarrekin, Kultur Etxean bertan.

Udala, eskola eta gurasoak elkarlanean aritzea izan da aldizkaria sortzearen xedea, batik bat. Herriko eskola duela 30 urte itxi zutela eta, egun, berriro ireki dutela aitzaiki hartuta, honen inguruko istorioak eta historia aztertzen ditu 38 orrialdez osaturiko lehen aleak. Halaber, lehen ale hau berezia izan dela azaldu dute eskolakoek. Esperientzia ona dela-eta, «aurrerantzean ere aldizkaria argitaratzen jarraitu nahi dute, baina formatoa ezberdina izango da eta oso aldiro aterako litzateke».

SALBATXISOKERO ▶

GAIA NAGUSIAK

- ▶ Abaltzisketako eskola txikiaren hasiera eta sorrera.
- ▶ Eskolaren oroitzapenak.
- ▶ Mari Karmenekin solasean.
- ▶ Txalburu eskolako gurasoen oroitzapenak.
- ▶ Ikasle txikien iritziak.
- ▶ Feli Lopetegiri elkarrizketa.
- ▶ Felix Elejalderen artelanak.

ZENBAIT DATU

- ▶ Lehen alea.
- ▶ 38 orrialde.
- ▶ Udalak, gurasoek eta eskolak elkarlanean bultzaturiko ekimena.



Sabaltxiskero aldizkaria. HITZA

Barandiaran Lizeoa
Matrikula: Ekainaren 30 - Uztailaren 6.

Batxilergoa:

- Natur eta Osasun Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Arteak.

Batxilergo elegantia

Manuel Lardizabal, 26 - 20.018 Donostia
tel: 943-213355 barandi02@kastola.net

ALEGIA ▶ JAIAK

Zikiro jatea izango da jaien lehen egunean

Gaurtik aurrera erosi ahal izango dira salgai jarritako 200 txartelak, 15 euroren truke

N. LATABURU

Uztailaren 14an jai giroan murgilduko da Alegia, herriko jaien hasierarekin. Lehen egunean berrikuntzarik ere izango da, izan ere, jaien hasiera iragartzen duen txintxarrien jaitsiera eguerdiko 12:00etan izango da —aurreko urteetan arratsalde ez giten zelarik—.

Gaualdean, berriz, zikiro jatea antolatu dute herriko plazan. Bertara joateko txartelak salgai dira dagoeneko Etxeberri-Enea, Hilario-Enea, Ixkiña, Kurpil eta Jubilatuen tabernan, 15 euroren truke. Guztira 200 txartel daude salgai. Aftariaren ostean, Mikel Markezek doakoa izango den kontzertua eskainiko du zine aretoan.

Egitaraua datozen eguno-

tan zehaztuko dute erabat Festa Batzordetakoek, baina jaietan gozatu ahal diren ekitaldi nagusien berri ere eman dute: musika eta kirola, besteak beste. Horrela, Mikel Markezekin batera Kerobia eta Split7-7 taldeen kontzertuak entzuteko beta izango da ostiralean. Bestalde, makro-diskoteka egingo dute larunbat gauean. Laja, Eguren eta Ziolar trikitilariekin berbera izango da eta bertso saioa ere eskainiko dute Egaña, Arzallus, Iturriaga eta Irazu bertso-lariek, besteak beste.

Larunbatean herri kirolen saioa izango da: Aimar Irigoien Saralegik 18 urterekin lortutako marka hausten saiatuko da, 5 minutuko tandan 225 kiloko harria altxatzea, hain zuzen ere.

ABALTZISKETA ▶

Zarautz-txiki abesbatzaren emanaldia, bihar

Zarauzko haurrek osaturiko Zarautz-txiki abesbatzak emanaldia eskainiko du Abaltzisketako elizan, bihar 18:00etatik aurrera. Udaletik herritar guztiei deia egin nahi diete abesbatzaren emanaldia entzutea hurbil daitezten, umeak pozik eta eroso senti daitezten herrira eginiko bisitan.

IBARRA ▶

San Bartolomeko zozketako txartelak salgai

Urtero San Bartolome jaietan eginen den zozketarako txartelak salgai daude dagoeneko. Hauek eskuratu ahal izateko Danon Txokoa, Arkaitzazpi, Txumitxa, Atari, Sendi Ekintza eta Zubiaurre tabernetara jo beharko da. Txartelekin lortzen den dirua Chileko herria laguntzeko erabiliko da.



MURTEGO TOUR-A KANARIAR BILETAN EDO MEDITERRANEOAN AMAI DEZKEMZU!

ANIMA ZAITEZ!! PARTE HARTZEA DORRANIK DAI!

BAREGLEAK

EROSKI

QUO

ORBEA

hitza

IBARRA ▶ JAIKAK

Jendeak «erantzun ona» eman die Gazte Festei

Kontzertuak eta goitibera jaitsiera azpimarratu dituzte antolatzaileek



Ostirlean jendetza bildu zen plazan Kautaren doinuez gozatuz. IBARRAKO GAZTE ASANBLADA



Ume jokoetan gaztebo ugari hartu zuen parte. I.T.

INIGO TERRADILLOS

Amaitu dira aurten 35. urteurrena bete duten eta *Gure herria, zuen hiria. Herriari galdetu!* lemapean egin diren Ibarako Gazte Festak, eta antolatzaileak, hau da, Ibarako Gazte Asanbladakoak gustura daude izan duten harreragatik.

Ibarako plazan eta Gazte-tean izan diren kontzertuak azpimarratu nahi izan dituzte; musika talde garrantzitsuak izan dira eta jende ugari izan da horien musikaz gozatzeko. Bestalde, larunbatean egitarau oparoa antolatu zuten, eta gaztetxoek bere tartea izan zuten bertan, ume joakoak, buruhandiak, txokolata-

da eta pailazoak, izan baitzituzten. Alurr eta Amarotzeko dantza taldekoen saioa ikusteko aukera izan zen plazan, eta ondoren Emeterio Arresen jokatu zuten futbol partida egun gazte asanbladako kide direnek irabazi zuten. Gauean, berriz, giroa Laiotz eta Gas taldeek jarri zuten.

Igandean etorri zen urte honetako berrikuntza, goitibera jaitsiera, alegia. Parte-hartzaile asko izan ziren, eta baita jende ugari ere, Uzturpetik plazara nola jaisten ziren ikusten.

Gustura daude, beraz, antolatzaileak, eta Gazte Festak posible izateko lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie.



Igandean, Gazte-tean Sioux-en doinuak izan ziren entzugai. IGA

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Shapha-ri, atzo Tolosako udaldebaxean ongi-etorria egiten. DV

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Tolosa erdialdean 126 m². Kanpoaldera. Garajearekin. Oso egoera onean. 649 25 40 80.

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

Palestinatik etorri da osasun arazoak artatzera

Biladi erakundearen bidez, eta Tolosako Udalak lagunduta etorri da Shapha

ERREDAKZIOA

Biladi erakundearen bidez, eta Tolosako Udalak lagunduta atzo goizean iritsi zen Jeninetik (Palestina) 10 urteko Shapha izeneko gaztetxoa.

Osasun arazoak ditu eta horiek hartatzeko helburuz etorri da Tolosara. Hain zuzen ere, neuro kirurgia zerbitzuak izango dira neskatoren arazoak konpontzeko ardura izango

duzenak. Bere gurasoekin etorri da, eta Berazubin, irakasleen etxebizitzak izandakoetan egongo dira Tolosan egongo diren egunetan, eta Udaleko gizarte zerbitzuen laguntza izango dute une oro. Shapha bezala, beste hiru gaztetxo palestinar ere izango dira Tolosan; euren lurraldean sendatzeko biderik ez dutela eta, hemen egingo dutenaren esperantzaz etorriko dira.

BELAUNTZA ▶

San Joan jaietako bazkarirako txartelak salgai

Ekainaren 23tik 26ra bitarte izango dira Belauntzan San Joan jaiak. Larunbatean, ekainaren 25ean, egingo da herri afaria Pagadi anaiak trikitilariet alaiturik eta bertara joateko txartelak eskura daude Belauntzako udaldebaxan 15 euro ordainduta.

LEABURU ▶

Sanpedroetako bertso afarirako txartelak salgai

Sanpedroetan, ekainaren 25ean, izango den bertso afarirako txartelak eskuratzeko gaur izango da azken eguna, Tolosako Raku tabernan eta Leaburuko Ostatuan, 25 euroren truke. Sebastian Lizaso, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Iker Zubeldia bertsolariak ariko dira bertan eta Gorka Tolosa jardungo du gai jartzaile lanean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebaxa: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Lurreamendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ARESO ▶ KULTUR EGUNA

Ikusgarrizko giroa izan da herrian: denentzat aukerako ekitaldiak

Iparraldeko jokuen sariketako 2. jardunaldiak ere bertan jokatu dira, Kultur Egunen osagarri egoki modura



Herriko dantzari tikiak ere saioa eskaini zuten, begira zeudenen txalo artean. Handienek egin zuten *Agurra*. J. ASTIBIA



Irazu eta Egaña bertsotan. J. ASTIBIA



Lastoaltzazailak oso ikusgarriak izan ziren. Iparraldeko jokuen sariketako bigarren jardunaldia egin zen eta Igantzi, Berriozar eta Garraldakoak lehiatu ziren. J. ASTIBIA



Azienda dotore eta eder askoak, patxadan egon ziren plazako larrean. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Eguraldia ere ezin aproposago egin duelarik, uda betebetekoa esan liteke, bertaratu zirenak gustura aski ibili ziren Areson, igaro berri diren larunbat-igandetan burutu den Kultur Eguna aitzaki.

Urtero ohi duten moduan, Kultur Eguna, baino egunak izan dira eta askotariko ekitaldiak izan dituzte ikusgai asteburuan aresoarrek eta kanpotik etorritakoez ere. Larunbatean umeez zertan entretenitua izan bazuten, jolasekin eta antzerkiarekin bestek beste, herenegungoa ez zuten gutxiagorako izan, herriko dantzariak urtean egiten dituzten saioetatik bat igandekoa izan baitzuten: hamahiru dantzari plazaratu ziren, eta ikurrinari agurra egin ondoren, *Agurra* dantzatu zuten kozkorrenek, eta ondoren, guztiek elkarrekin, Makil dantza. Bertaratu zirenen txaloen artean sartu eta atera ziren, irrifartsu.

Ordurako, ordea, eta eguerdiarte guztian zehar, ganadu feria burutu zen plazako larrean. Herriko hainbat etxe eta baserrietako azindak ikusgai izan ziren. Plazaren alde batera, behi eta txekor, behor eta zaldiko, astoa, azinda eta abere eder askoak ikus zitezkeen, patxadan. Beste aldera, berriz, ardi eta ahuntz taldeak ageri ziren, itxituretan, eta untxi batzuzk tarrean zirela, lumadunak jarraian, beren karioletan: etxeko zuriak eta beltzak, usapa-

lak, ahartetxoak eta euskal arrazako hainbat oilo beltz, gorri eta zuri. Hain zuzen ere, dagoneko ohitura bihurtu dena, loka bere txitekin ere hantxe zen lumak harro-harro eginda. Ongi zaindutako aziendak, beraz, urteroko ferian agertu zirenak.

Ongi bazkaldu zutenak, udalaxeko karrapean herri bazkarian parte hartu zutenak izan ziren. Giro aparta egiten baitzuten, barren eta kanpo: jaki goxoak eta edari freskoak, eta umorea gogotsu, Irazuren eta Egañaren bertsoek ere horretan lagundu zutelarik.

Iparraldeko jokoak

Kontuak kontu, eguna ez zen bazkariarekin bukatu inondik ere. Izan ere, Iparraldeko Jokuen txapelketako saioa Areson egin baitzuten igandean. Horrela Nafarroako herri zenbaiten artean egiten ari diren sariketa horren barruko bigarren jardunaldian, Igantzi, Garraldako eta Berriozarko taldeak aritu ziren elkarren lehian, nor baino nor: soskor biltzen, ingudearekin, harri jasotzen (125eko zilindroa, 113ko kubikoa eta 100eko bola), lasto altxatzen, zaku-eramatzen eta txingekin... Zuten guztia eman zuten, ikuslearen animo oihuen artean.

Kultur egunei bukaera emateko, giroa ere freskatu zuen ordurako, arratsaldeko moka-udu bat egiteko baliatu zuten, lagunartean jarraituz.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Abaltzisketa. Eraikuntza berriko etxe atxikiak, terraza eta lursailarekin. Bista ederrak Txindokira eta

bailarara.

Anoeta. Eraikuntza nahiko berria. 3 logela, 2 bainugela. Garajea.

Egoera oso ona. 318.540 euro.

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai, ikusteko modukoa, bista ederrak.

Ataun. San Martin. 2 logela.

Berritzeko. 75.125 euro!!

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako

etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ibarra. Plaza inguruan garajea

salgai.

Ikaztegieta. 6 etxe atxikien

eraikuntza berria. Informazio

pertsonala.

Ikaztegieta. Etxe atxikiak salgai.

Lorategi eguzkitsuarekin.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta

bi bainugela. Trasteleku eta

garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko

modukoa !!!

Tolasaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai.

Ikusgarria !!!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 155.060 eurotik

aurrera.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela,

sukaldea, bainugela. Berokuntza.

Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela.

Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro azoan 3 logelako

etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m2-ko

etxebizitza berritzeko,

igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m2-ko

etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego

bezala egokitua). Estreinatzeko,

guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz

berritutako etxebizitza salgai.

Ikusteko modukoa!!!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza

berria. 2 logela, egongela, sukaldea,

bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behian: Garajea, komuna eta bokoa.

Txarama inguruan. 100 m2-ko

etxebizitza terrazarekin, egongela su

bajuarekin, terrenoa eta garajearekin.

Oso egoera onean.

Tolosa. Larramendi. 2 logela,

egongela, sukaldea eta bainugela.

Trasteleku ederra ganbaran.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi

bainugela. Egongela ederra.

Ezin hobeto !!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2

bainugela. Garajea aukeran.

Egoera bikaina.

Tolosa. Ibai aldera eta hegoaldera. 4

logela, bi bainugela. Trasteleku eta

garajea. Aukera paregabea!!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101

eta 109 m2-ko bi etxebizitza bikain.

Estreinatzeko, erabat berritua izan

ondoren. Kalitate oso onak.

Igogailu eta berokuntzarekin !!!

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean.

124m2-ko etxebizitza garajearekin.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua

dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna

alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea

alokairuan.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko

etxebizitza salgai.

Eguzkitsua.

Villabona. Etxeondo. Pisua

garajearekin. Pisua, 3 logela eta

2 bainugelarekin. Garajea,

50 m2-koa, karabanentzat egokia.

Villabona. Kale berria. 34 m2-ko

garaje itxia salmentan.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. III. Langostino Moto festarako izen-ematea zabalik dago. Gosaria, hamaiketako, bazkaria, afaria eta opari poltsa eskuratzeko, aurretik 22 euro edo bestela 25 euro. Euskadiko Kutxa: 3035 0141 84 1410023.

Larraul. Loatzo musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako emanaldia elkartean 19:30ean.

Tolosa. Palestina eta Israelen artean erakitzen ari diren hormari buruzko bideoa eta bizipenak. Kultur Etxean 19:30ean.

Tolosa. Sanjoanetako zezenketak: 24an errektoriariak, 25ean Bohorquez, Galan eta Magro errejoneadoreak eta 26an Conde, Morante eta Cayetano toreatzaileak. Sarrerak Tolosako Asteasuara, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan. 943 64 16 66, 659 676 570.

Villabona. Loatzo musika eskolako ikasleen saioa Gurea zineman 18:00etan.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Pinturak. Ostata.

Tolosa. Aitor Ventureira. Inauteriei buruzko argazkiak. Ganbara denda.

Tolosa. Malen Urtzelai. Margolanak. Sorron denda.

Tolosa. Carmen Mateo. Akuairelak. Fronton kafetegia.

Tolosa. Dick Rekalde. Pinturak. Aranburu Jauregia.

Tolosa. Josu Gonzalez.

Sanjoanei buruzko argazkiak. Saikin taberna.

Tolosa. Alejandro Gonzalez.

Pinturak. Lanbroa taberna.

Tolosa. Kultur Etxeko tailerretako ikasleen lanak. Aranburu Jauregia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Azpiroz, M.L. Amaro 9. 943 67 51 18.

Tolosa. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa. 19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Orfeoia ren lanaren fruitu

TOLOSA ▶ Emanaldi bikaina burutu zuten opera ezagunen zatiak eskainiz Concerto orkestra eta bi bakarlarirekin batera, baina entzule gutxi bildu zuen



Sabina Puertolas eta Jon Plazaola bakarlariek entzulegoaren txaloak eskertzen herenegun Leidor zineman. J. SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Hilabete luzetako lanaren agerraldia egin zuen herenegun Tolosako Orfeoia Leidor zineman. Concerto orkestra eta Sabina Puertolas eta Jon Plazaola bakarlariekin batera emanaldi bikaina burutu zuten Daniel Montanerren zu-

zendaritzapean. Hala ere, egin-dako lana eta emaitza ikusita, jendearen erantzuna ez neurri berekoa izan, oso entzule gutxi bildu baitzen aretoan.

Opera gaua deitu zioten antolatzaileek ekitaldiari eta opera ezagun batzuen zatiez gozatzeko aukera eman zioten bildutako entzuleei: *Txirula*

magikoa, *Rigoletto*, *Il trovatore*, *Hoffmanen ipuinak*, *La Traviata*...

Iruñeko Concerto orkestrak paper garrantzitsua izan zuen kontzertuan. Esperientzia handiko musikari poloniarrek sortu zuten 1990ean orkestra hau, Pablo Sarasate orkestra sinfonikoko bakarlariek. Obra guz-

tietan zehar, oinarri musikala sendoa eskaini zioten emanaldiari.

Bakarlariek ere paper garrantzitsua izan zuten. Beraientzat izan ziren txalo gehienak, batez ere *Rigoletto*-ko *Caro None* eta *La Traviata*-ko *Sempre Libera* obretan Sabina Puertolas sopranoaren kasuan —oso ahots polita erakutsi zuen—, *Una furtiva lacrima* obran Jon Plazaola tenorearen kasuan eta *L'elixir d'amore* obran bi bakarlariekin, antzezlearen arteko borroka politarekin.

Tolosako Orfeoia zen antolatuzaile eta kontzertuko protagonista nagusia, obra gehienetan parte hartuz, batzuetan bakarlariekin laguntzarekin. Beti bezala txukun aritu ziren, lan duina eginez kontzertu osoan zehar. Une gogoangarrienak lehen zatien bukaeran —*Il trovatore*-ko *Coro de Zingarelle* obran—, eta bigarrenaren bukaeran —*La Traviata*-ko *Brindisa*— iritsi ziren. Txalo zaparradaz erantzun zuen bietan entzulegoak. Azken obra hau berriro eskaini zuten esker modura.

Laster itxi eta hasiko diren lanen aurrean, Leidor aretoari agurra emateko ekitaldi aproposa izan zen.

AGURRAK ▶ Urbetetzea, jaitzea, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAREN egoitzara; ekarri argazkia

